



# Nafarroako errege-erreginen omenaldia

Leireko San Salvatore monasterioa  
2017ko ekainaren 25ean



## HIMNO DE NAVARRA

Por Navarra,  
tierra brava y noble, siempre fiel,  
que tiene por blasón,  
la vieja ley tradicional.

Por Navarra,  
pueblo de alma libre,  
proclamemos juntos  
nuestro afán universal.

En cordial unión,  
con leal tesón,  
trabajemos  
y hermanados todos lograremos  
honra, amor y paz.

## NAFARROAKO ERESERKIA

Nafarroa, lur haundi ta azkar,  
beti leial, zure ospea da  
antzinako lege zaharra

Nafarroa, gizon askatuen sorlekua,  
zuri nahi dizugu gaur kanta

Gaiten denok bat,  
denok gogo bat,  
behin betiko iritsi dezagun  
aintza, bake eta maitasuna.

# Programa

## 11,3oetan.

Nafarroako errege-erreginen aldeko meza

Musika zatiak: Monasterioko Monjeen abesbatza, Nora abesbatza eta organoa

*De Angelis* meza

Sarrera kantua: *Aintza Zuri Jauna* (Anonimoa)

2. irakurgaiaren ondotik: *Alleluia* (P. Aldave)

Eskaintza: *Toccatà eta fuga re minorrean BWV 545*, Johann Sebastian Bach (1685-1750)

Gure aita: *Gure Aita* (Anonimoa)

Jaunartzea: *Ave Maria* (G. Caccini)

Amaia: *Toccatà (Sinfonia Op. 42 5. zk.)* - Charles-Marie Widor (1844-1937)

## 12,3oetan.

**Omenezko ekitaldi instituzionala errege-panteoiaren aurrean, honako garapen honekin:**

- Monasterioan barna ibilbide bat egingen du segizio ofizialak, honako kideak dituela:
  - ▶ Giltzariak, lore koroa eta eskaingaiak daramatzatela
  - ▶ Mazo-eramaleak eta Arma Erregea
  - ▶ Agintarien segizioa, Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakaria, Nafarroako Parlamentuko Lehendakaria eta Nafarroako Gobernuako kontseilariak kide dituela.
- Segizioak aurrera egiten du, Nafarroako Gobernuaren Tronpeta eta Tinbal bandak jota Nafarroako himnoa, *Erreinuaren sarrerarako martxa*, entzuten den bitartean.
- Abadia-elizan sartzean organoak, orobat, Nafarroako himnoa joko du.
- Segizioa osatzen duten agintariek, Dom Juan Manuel Apestegua Martínez de Goñi monasterioko abade mitradunaren agurra jaso eta zeinek bere tokia hartuko dute Nafarroako errege-erreginen panteoiaren aurrean.
- Zangozako Nora abesbatzak, Bruno Jiménez zuzendari, Kentaro Satoren *Requiem pacis, 5 zk.*, "*In paradisum*" kantatuko du.
- Eloísa Ramírez Vaquero historialariaren testu bat irakurriko da, gaztelaniaz eta euskaraz, Leirek Nafarroako historian duen sinbolismoa eta ekitaldi honen arrazoia azaltzeko.





- Abadeak errege-panteoiaren ondoan argizari bat piztuko du, monasterioko monjeen abesbatzak *Lux Aeterna*, XII. mendeko kantu gregorianoa zatikia abesten duen artean.
- Gaztelaniaz eta euskaraz, omenaldiaren zergatia azaltzen duen testua irakurriko da.
- Organoak jota, “*Fugal Epilogue*” - Sidney Campbell (1909-1974) entzuten da. Organo jolea: José Luis Echechipía
- Nafarroako errege-erreginei Leiren omenaldia egiteko tradizioa gogorarazten duen testua irakurriko da.
- Ondoren hiru Foru Instituzioen –Nafarroako Parlamentua, Nafarroako Gobernu eta Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakaria- Nafarroako errege-erregindako eskaintza egingen da.
- Nafarroako Lehendakaria, Uxue Barkos; Nafarroako Parlamentuko Lehendakaria, Ainhoa Aznárez, eta Gobernuaren lehenbiziko Lehendakariordea, Manu Aierdi, panteoira hurbilduko dira.
- Lehenbiziko Lehendakariordeak zilarrezko urna eskainiko du, Nafarroako Gobernuak monasterioari egiten dion emaitza daukana.
- Parlamentuko Lehendakariak liburu bat emanen du eskaintza, Nafarroako Gorteen eta Nafarroako Parlamentuaren legegintzaren islagarria.
- Foru Komunitateko Lehendakariak lore gorritzko koroa bat ezarriko du, honako irakurgaiarekin: “**Navarra a sus reyes y reinas. Nafarroak bere errege-erreginei**”.
- Eskaintza hauek egiten direno, Nora abesbatzak *Agur Jaunak* kantatuko du, Pascual Aldavek harmonizatua.
- Ondoren Nafarroaren himnoa, *Erreinuaren sarrerarako martxa* entzuten da, euskaraz eta erdaraz Nora abesbatzak eta bertan direnek kantatua.
- Segizioa elizatik atera, organoak jota Erreinuaren sarrerarako martxaren minuetoa entzuten den artean, eta talde argazki baterako posatuko du, Porta Speciosako harmailetan.
- Segizioak aurrera egiten du Ostatuaren patioraino, Tronpeta eta Tinbal bandak jota Nafarroaren himnoaren akordeak entzuten diren bitartean.





### 13,00ean

Ostatuaren patioan Luzaideko Bolantak dantza taldeak dantza tradizionalen ikuskizun bat emanen du.

Luzaideko bolantek Nafarroa Behereko ihauteriarekin du lotura hertsia. Bolantak, gaurko antzepenean jada ageri ez diren beste zenbait pertsonaiarekin batera, “kabalkada” baten itxuran ateratzen dira Luzaideko auzoetan.

Duela 50 bat urtetatik hona, Bolanten jai tradizionala Bezpizkunde Igandean edo Bazko Igandean ospatzen da, bolantaren irudi nagusia atxikiz eta jaiei dantza berriak erantsiz.

Gaur egun 130 baino gehiago jendek, gizon nahiz emakume, osatzen dute taldea, hala nola makilariak, zaldizkoak, gorriak, atxo ta tupinak, zigantepekoak eta zapurrak. Denek dantza hauek antzestuz parte hartzen dute jaietan, bai gizez bai arratsaldean, herritarren eta turisten aurrean.

Honako dantza hauek antzesten dira maizenik emanaldi honetan: *Martxa*, *Bolant Dantza* eta *Lauetan Erdizka*, zeina bolant guztiek batera antzesten duten. Hauek beti dantza sailaren hasiera bezala dantatzen dira, zeren haien dantza moduak bide ematen du aurrera egiteko. Bukaerarako ere erabiltzen dira, agurraren gisara.

*Martxa* da Bolantek dantza egiten duten tokian sartzeko erabiltzen duten dantza. Behin bukatu dutenean, *Bolant Dantza* dantzatzen dute, dantzarik ezaugarrienetako bat. Bukatzeko, *Lauetan Erdizka* antzesten da, zenbait tokitan “Antrexantak” ere deitua. Modu egonkorrean dantzatzen da, aurreko dantza bukatu den jarrera berean eta trebezia handia behar du Antrexantak direlakoak ahalik eta zehatzenik egiteko.

Hiru dantza hauen ondotik, taldea formazioan jarriko da Jauziak deitutako dantza sail bat antzesteko, bolanteen trebetasunik handiena behar dutenak. Borobilean dantzatzen dira, beti erlojuaren kontrako norabidean hasita. Tradizioz Jauziak gizonak dantzatu izan dituzte, baina joan deneko zenbait urte honetan emakumezko bolantek ere parte hartzen dute.





### **Muxikoak**

Muxikoak da dantza sail honetako dantzarik ezagunena hedatuena eta islagarriena.

### **Hegi**

Hauxe da gaur egun maizenik dantzatzen ddiren dantzetako bat. Hasieran pausoan dantzatzen da, antrexantarik gabe: ondoren berriz, modu tradizionalan egiten dira urratsak.

### **Eskualdunak**

Konposizio moderno xamarra. *Sorginak* bezala, bi jauzi dira, borobilean gabe bi lerrotan dantzatzen direnak dantzari bakoitzak bere bikoteari begira dagoela. Gutxi irauten du, dantzariak gurutzatzen dira eta beraz lagunarekin tokiz aldatzen.

### **Sorginak**

Dantzariak bi lerrotan jartzen dira, denak ikusleei begira daudela eta antzespenaren erdian lerro bakarra osatuz.

### **Lapurtar motxak**

Hauxe da dantzatzeko zailenetako den piezetako bat, eta bai, aldi berean, osoenetakoa eta ederrenetakoa. Erritmo aldaketak eta askotariko urratsak ditu ezaugarri.

### **Agur esateko azken martxa**

Pieza hoenkin, lehen martxetakoa bera baita, bukatu ohi da bolanten emanaldia, publikoari eta ikusleei agur eginez.

### **13,30an**

Ostatuaren iparraldeko hormaren ondoko lorategi eremuan, orerendako otamen bat izanen da.





Leire Aroko erregeek ohitura izaten zuten monasterio bat hautatu eta hura beren dinastiarekin lotzeko, bertan beren izpiritua sendotu eta abiaburua ere izan zedin orduko jardun politikorako, pentsamendurako eta jakintza lanetarako. Izpiritua sendotzeko lekuak ez ezik, pentsamendua elikatzeko moduko jakintza eta kultura sorguneak eratu nahi izaten zituzten. Monasterio hauetan, adibidez, zuzenbide tresnak, egitura intelektualak eta artikulazio politikoko bideak aurkitu eta aztertu egiten ziren. Monasterio edo abedetxeok erregeei gobernurako behar zituzten tresnak ematen zizkieten, haien memoria kulturala bermatzen eta haien etorkizunerako asmoak itxuratzen. Hainbat alorretako adituak biltzen ziren hemen, Zuzenbidekoak nahiz filosofiakoak, monarkia ernaberri haien ideologia eraikitzen laguntzeko gai zirenak. Denboraren joanean maiz ehorztegi, zeremonia-toki edo gerizaleku bihurtu zirelarik, monasteriook jatorrien oroimenari eta erregetzaren beraren eraikuntzari loturik gelditu ziren.



Leire da Nafarroako monasteriorik zaharrena. Ez dakigu zehazki noiz fundatu zen, baina San Eulogio Kordobakoak 848. urtean bisita egin zionean, kulturagune garrantzizkoa aurkitu zuen bertan. Kordobako mozarabeen buruzagi hura harritu zen noiz eta, erabat ustegabeen, Leireko liburutegian Antzinaro klasikoko hainbat lan aurkitu zituenean, eta Karlomagoren garaiko garabide kultural ezagunaren aztarna argia. Haren funtsen aberastasunak salatzen du bertan ikastegi edo ikertegi bat izan zela, ezagutza bereganatu eta jakintza zabaltzeko arduraduna. 905. urtean, Antso Gartzes I.a Iruñean erregetzen denean, Arista leinuko azkena, Fortun Gartzes, Leirera erretiratzen da, non aita ehortzirik zeukan, Gartzia Iñiguez, eta bai ere, agidanez, aitona, Eneko Arista.

Leire, halatan, Iruñeko errege-familiaren panteoi zaharrena dela ageri da.



Leire berehala, erreinuaren sorreraren oroimenari loturik gelditzen da eta dinastiaren zentro izpiritual eta intelektual gisa bermatuko da.

Segur aski Antso Gartzesen ondorengoetatik bakan batzuk baizik ez ziren han ehortzi, baina haiei zor diegu, hain zuzen, eraikuntza erromaniko honen handitasuna, orduan (1057 urtea) erabat ohiz kanpokoak, Penintsulako eliza erromaniko handien mapa ia hutsik zegoen garaian. Leire errege familiaren jatorrigunea izanen da beti eta Nafarroaren erreferente historikoa, zeinak mende askotan bere-beregisako gobernu sistema bat ezarriko baitu, erregearen eta erreinuaren arteko itunean oinarritua. Leireko kriptako kolona harrigarriak monasterio honek goiz-goizdanik izandako ospearen lekukotza argia dira.



Nafarroako Monumentu Artistikoen Batzordeak bere helburu lehene-  
tsien artean kontatu zuen Leire, orduan lazki hondatua XIX. men-  
deko gerra eta desamortizazioen ondorioz. Mende haren erdialdetik  
aurrera, agerian gelditu zen Leire balio historiko artistikoa izateaz  
gain, erreinuaren oroimenerako erreferentzia dela.

1867an, Batzordea gauza izan zen monumentua enkantean saltzea  
galarazi eta monumentu historiko nazional deklaratu babestea. Ho-  
rrela, eraikinak lehengoratzeko bide luze bati ekin zitzaion, eta bai  
bere joia esanguratsuenetako batzuk ere, hala nola Kalifatoaren garaiko arketa,  
gaur Nafarroako Museoan gordea.

1915ean, errege-erreginen hondakinak, desamortizazioaren ondoren Esako parro-  
kian altxaturik egon zirenak, Leirera itzuli ziren. 1954an beneditar balderna bertara  
itzuli zenean, berriz hasi zen monasterioko eguneroko bizitza.



1973az geroz, Nafarroako ordezkariak instituzionalak urtero omenaldi bat egiten  
die erreinu zaharreko errege-erreginei Leireko panteoi honen aurrean. Haien bitar-  
tez, eta agertoki ikusgarri honetan, historia luze bati egiten zaio ohore. Gaur ome-  
naldi hori berritu eta mantentzera gatoz, Foru Komunitateko instituzioak bertan  
daudela: Parlamentua, Gobernua eta Foru Komunitateko Lehendakaria. Aitormena  
ematen zaie, horrela, galdatu zutenei hamabi baino gehiago mendez bizirik iraun  
duen giza eta lurralde osotasun hau, Nafarroaren oraina eta geroa bultzatzen dituen  
ondarea.

Eloísa Ramírez Vaquero